



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZRODEA

2015/16 DENBORALDIA

30 ZK.DUN ZIRKULARRA

ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGARA IGOTZEKO FASEA

Euskal Ligako kategorian egon daitezkeen leku libreak betetzeko helburuarekin, Areto Futboleko Euskal Batzorde honek, denboraldi honetarako Lehiaketan Planean ezarritakoaren arabera, aipatutako Igoera Fasea antolatu du, ondorengo arauei jarraiki

1.- PARTE HARTZEN DUTEN KLUBEK

Araba eta Bizkaiko maila goreneko kategorietan bigarren sailkatu direnak.

2. - LEHIAKETA SISTEMA

Liga sistema erabiliko da.

Partida guztiak baloi ofizialarekin jokatu behar dira nahitaez, "JOMA" markako GAME SALA areto futbolerako dena.

Partida hastean etxeko taldeak gutxienez 5 baloi izan beharko ditu: 2 arbitroarentzat, eta beste 2, kanpoko taldearentzat.

Xedapen hau betetzen ez duen taldea zigortuko du Lehiaketako Epaile Bakarrak.

Taldeak, gutxienez, partida hasi baino ordu erdi lehenago aurkeztu behar dira zelaira, eta denbora tarte berean lizentziak aurkeztu beharko dizkiote epaileari eta kronometratzaileari.

Partida hasi baino hamabost minutu lehenago jokalekuan ezin izango da egon bestelako jarduerarik, kanpoko taldeak beroketa-ariketak egin ditzan.

Partida bat hasi ahal izateko, talde bakoitzak, gutxienez, jokatzeko moduan dauden sei jokalariez gain, taldearen ordezkari bat ere aurkeztu beharko ditu. Halaber, etxeko taldeek behar bezala identifikatutako eta arbitroaren esanetara dagoen **zelaiko ordezkari** bat aurkeztu beharko du nahitaez.

Partidek 20 minutuko bi zati izango dituzte, kronometratuko dira, eta 10 minutuko atsedena izango dute.

3.- DATAK eta ZOZKETA

Partidak jolasteko datak .



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZRODEA

- 2 -

06/04 BIZKAIA - ALAVA
06/11 ALAVA- BIZKAIA

4. - JARDUNALDIAK ETA PARTIDEN ORDUTEGIAK

Partiden data, ordua eta jokalekua partida jokatu aurreko asteko ostiraleko 19:00ak baino lehen idatziz (P.E. futbolsala@eff-fvf.eus edo FAX 944732221) jakin beharko ditu Federazio honek. Halaber, partida jokatu aurreko asteazkeneko 22:00ak baino lehen jakinaraziko zaio kanpoko taldeari. Partidak hasteko ordutegiak, tarte hauetan egon beharko dira:

Larunbatetan: 15:45 – 20:00

Igandeetan: 11:00 – 13:00 eta 16:00 – 18:00

Klub guztiak ezarritako partiden ordutegi ofizialak aldatzeko eskumena dute, betiere kanpoko taldea ados badago, eta Areta Futboleko Euskal Batzordeko Idazkaritzari idatziz jakinarazten badiote partida jokatu aurreko asteko ostiraleko 19:00ak baino lehen. Aldaketaren dokumentuan bi klubak zizilua eta sinadura agertu beharko da.

Aldaketa horrek arbitroengan eragina duenez, zelaiko jabeak diren klubek beste 13 € arbitro bakoitzeko ordaindu beharko dituzte arbitroen ordainagirian.

Jakinarazpena idatziz egiten ez bada, edo epea kanpo egiten bada, eskatutako ordutegi aldaketari ez zaio baimenik emango.

5. - BERDINKETAK

Kanporaketa sistemaren bitartez bi partiduetara jolasten diren txapelketetan, partidu bietan jasotako eta sartutako golak kontutan harturik, alde gol diferentzia handiena lortu duen taldeak irabaziko du.

Lortutako gol diferentzia berdina izango balitz, kontrakoaren futbol zelaiean gol gehien sartu dituen klub aterako litzateke garaile.

Luzapena bukatu eta gero markagailuan berdinketa jarraituko balu, talde bakoitzak hiru penalti botako lituzke, jaurtiketa alternatiboki eginik, hau da, lehenengo penaltia talde batek eta gero bestea, horrela talde bakoitzak dagokizkionak jaurti arte.

Hiru jaurtiketak egin eta gero berdinketak jarraituko balu, jaurtiketak orden berean jarraituko dute, banan-banan, eta lehen jaurtiketak egin ez dituzten beste jokalariek batzuk egin beharko dituzte jaurtiketak, jaurtiketa kopuru berdina egin eta gero, bi taldeetako batek tanto baten diferentzia lortu arte, eta honela garaile izanik.

../..



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL
ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZRODEA

- 3 -

6. - ARBITROAK

Izendatutako arbitroak Lurralde kategoriakoak izan dira, eta zelaiko jabea den taldeak dagokion ordainagiria ordainduko du, zenbatekoa ohizko ligakoa izanik Arbitroa eta Mahaiko Epailea.

7. - DIZIPLINA BATZORDEA

Partida bukatzean, arbitroaren akta Euskal Batzordeari bidaliko zaio, posta urgentearen bidez, posta elektronikoz edo faxez, Epaile Bakarrak bere epaia eman dezan, hala suertatzekotan. **Akta asteleheneko 20.00ak baino lehen izan beharko du AFEbk.**

Honetaz gain, jakinarazten dugu, isun ekonomikoa ezartzekotan, Areto Futboleko Euskal ligarako zenbatekoak izango direla.

Hala jakinarazten zaie lehiatzen duten klubei, Arabako Futbol Federazioari, Bizkaiko Futbol Federakundeari, Gipuzkoako Areto Futboleko Batzordeari, eta Areto Futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoari, jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako.

2016ko ekainak 1 Bilbon

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General